

## ESKOLORDUZ KANPOKO JARDUERAK

Deskribapena: Haurrak, ekintza desberdinak egiten ageri dira imajina desberdinetan.

Kike (off ahotsa): Haur eta gazteek eskola-orduak amaitzen dituztenean, bestelako betebeharrak edo ekintzak ere izaten dituzte; mota guztietako kirol-ekintzak, solfeoa eta musika-tresnak, igerilekura bisita, bertso-eskola, baleta eta euskal-dantzak, eskola-partikularrak, ingelesa eta abar luze bat. Erritmo honekin ezin esan denbora libre asko dutenik!

Deskribapena: Ikasgela batean gazteak ageri dira hitz egiten.

Lehenengo mutila: “Ba nik futbola eitten dut eta beti erderaz.”

Lehenengo neska: “Nik karateitan itten dut ta han erderaz beti itten dut.”

Bigarren mutila: “Nik pilotan itten dut da, bueno hori da nire kirola da hor beti euskeraz, entrenadoria be euskalduna da.”

Hirugarren mutila: “Futbolean, ba, daukat entrenatzaile bat erderaz egiten duena eta beste bat euskeraz. Eta batzutan erderaz eta beste batzutan euskeraz egiten dut.”

Bigarren mutila: “Da gero bizikletan be bai, bueno hor ja erderaz, gauzie aldatu itten da ta...”

Bigarren neska: “Monitore batzuk ez dakixela erderaz, osea euskeraz, orduan ba erderaz egin behar eurekin.”

Laugarren mutila: “Txirrindularitza egiten dut eta erderaz egiten dut.”

Bosgarren mutila: “Ni futbolean erderaz itten dut eta batzutan euskeraz eta etxean erderaz gehienetan.”

Hirugarren neska: “Telebista ikusten dut normalian erderaz.”

Laugarren neska: “Ba sare sozialetan gehienetan egiten dogu erderaz baina segun nogaz ba, euskeraz bebai.”

Seigarren mutila: “Euskara gehienetan, osea leku gehienetan hitz egiten dena, osea, gaztelekuan da. Monitoreak euskeraz egiten dutelako.”

Zazpigarren mutila: “Ba musika eta euskeraz entzuten dut batzutan eta erderaz.”

Bosgarren neska: “Inglesez, gehienetan ingelesez.”

Zortzigarren mutila: “Danak erderaz iten badute, zuk ere erderaz ingozu ta edo danak euskeraz, zuk bebai ingo zu euskeraz. “